

KOSTUEN EGITURA

Aurretik aipatutako zerbitzuak ordaintzea beharrezkoa izango da gure produktua garatzeko. Bi ataletan ezberdinduko ditugu kostu mota hauek: hasierakoak eta jardunekoak. Azken honetan kostu finkoak eta aldakorrak ezberdinduko ditugu.

Hasierako kostuetan programatzailearen kontratazioa 220€-koa izango da. Mantentze lanak egiteko edota funtzio berriak sartzeko 35€-ko kuota ordainduko dugu hilabetero. Lokaleko altzariak guk erosiko ditugu, hiru mahai eta hiru aulki. eta 900€-ko kostua edukiko dute. Bakoitzarentzat Macbook Air bat erostea adostu dugu, eta honen kostua 3050€-koa izango da. Azkenik, gure aplikazioa Play Storen erregistratzeko 25€ ordaindu beharko ditugu. Guztira 4195€-ko hasierako kostuak izango dira.

HASIERAKO KOSTUAK:

KONTZEPTUA	KOSTUA
Altzariak	900€
Programatzailea	220€
Ordenagailuak	3050€
Play Store	25€
GUZTIRA:	4195€

Kostu finkoei dagokienez, UGGASari alokatutako lokalaren kuota ordainduko dugu, 40€ hilabetero. Soldatak 1000€-tan ipiniko ditugu hasiera batean, beraz hiru taldekide garenez 36.000€ izango da urtero. App Storen urtero 100€-ko kuota bat ordainduko dugu. Azkenik, programatzailearen mantentze lanak 35€ izango dira hilabetero, 420€ urtero izanda.

KOSTU FINKOAK:

KONTZEPTUA	HILABETEKO KUOTA	URTEKO KUOTA
UGGASA	40€	40€ x 12= 480€
Soldatak	1000€ x 3=3000€	3000€ x 12= 36.000€
App Store	-	100€
Programatzailea	35€	35€ x 12= 420€
GUZTIRA:	1075€	37.000€

Gure kostu aldakor bakarra publizitatea da, eta 300€ hilabetero jarriko dugu, urtero 3600€ izanda.

KOSTU ALDAKORRAK:

KONTZEPTUA	HILABETEKO KUOTA	URTEKO KUOTA
Publizitatea	300€	3600€

Kostu guztiak aztertu ondoren, aurreikusten dugu gure aplikazio honen lehenengo urteko kostuak ~~44.795€~~koak izango direla. Noski, kostu aldakorrak ere ditugunez kopuru hori ez da guztiz zehatza.